



Amurrioko Amiantec 3000 enpresako langile bat hil da Loiuko GECSA enpresaren instalazioetan lan egiten zebilala altuera batetik erori eta gero.

ELAk bildutako datuen arabera, 30 urte inguruko M.L. Gazte bat lan-istripu batean hil da Loiuko GECSA Conductores y Conexiones Especiales, S.A. enpresan. Altuerako lanak egiten zituen bitartean, langilea teilatutik erori eta hil egin da.

Aurten 46 pertsona hil dira beraien lanpostuan Hego Euskal Herrian, lan-istripuetan buru izaten jarraitzen duen lurraldea estatu mailan. Altuerako lanetan eroritakoak dira istripu hilgarrien arrazoi nagusietako bat, oinarrizko segurtasun-neurriak hartu ezkeru guztiz saihestu daitekeena.

Lan-istripu hilgarria eragin duten baldintzak ikertu eta argitzeko eskatzen dugu, baita ere izan daitezkeen erantzukizunak onartu daitezela.

Ildo horretan, laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legea bere osotasunean bete ditzatela eskatzen diegu enpresei, gaur salatzen gabiltzanaren bezalako lan hilgarriak berriro gerta ez daitezen, eta erakunde publikoei ikuskaritzak egiteko baliabideak areagotu ditzatela exijitzen diegu Legea betetzen dela kontrolatzeko, eta gaur egungo albiste tamalgarriak saihesteko.